

Juan Kruz Igerabide: “Umetan ipuinak irakurri izana ez digute eskertuko hamar urte barru”

Umeentzako liburu ugari idazteaz gain, haur literatura ikertu du Juan Kruz Igerabidek (Aduna, Gipuzkoa, 1956). Bularretik mintzora: haurra, ahozketasuna eta literatura ikerketa argitaratu zuen 1993. urtean. Gaia ahotan izango du gaur, 18:30ean, Oñatiko udal liburutegian (Gipuzkoa), Haur literatura eta hizkuntza afektiboaren arteko lotura hitzaldian.

Noiz hasten da literatura haur batentzat, hitz egiten eta irakurtzen ikasi ondoren, edo aurretik?

Jaiotzen denetik hasten da lantzen. Tradizioak erakutsi dizkigun pieza askoren bitartez: seaska kantak, jolasak, haurrari egiten zaizkion dantzatxoak... Sentimendua adierazteko hizkuntzak duen garrantzia aztertuko dut hitzaldian. Haurra gero eta txikiagoa izan, orduan eta lotuagoak daude literatura eta afektibitatea. Gero egiten dugu banaketa helduok, artea alde batetik eta bizitza bestetik. Antzinako herrietako piezak eta jokabide literario-psikologikoak aipatzen ditut, literaturaren sorrera eta gizakiaren sorreraren arteko parekotasun hori erakusteko.

Nongo literaturako adibideak erabiltzen dituzu hori ilustratzeko?

Gure tradizioko adibideak, alde batetik; baina antzinako beste gizarteetakoak, bestalde. Nire azterketaren arabera, Euskal Herrikoak bide beretik doaz. Piezaz pieza aztertzen ditut, eta ikusten da mekanismo psikologiko berberekin sortuta daudela gureak ere, batez ere onomatopeian oinarriturikoak.

Zertan egiten dio mesede literatura horrek haurrari?

Hizkuntza eskuratzen eta norberaren sentipenak adierazteko erraztasuna ematen laguntzen dio.

Ez al da errazegia pentsatzea haurrarekin literatura hori landu badugu gero zaleagoa izango dela?

Bai, hori faktore bat baino ez da mila faktoreren artean. Baina bere garrantzia izan dezake; psikoanalistek eta bestelako ikertzaileek aztertu dute, eta nabarmendu dute zein garrantzitsua den haurrari hizkera sinbolikoa ematea, ipuinen eta poemen bidez. Noski, hori eragile txiki bat da gizartearen eta telebistaren eraginaren aurrean. Gurasoen maitasunik ez baduzu edo bortxa badago tartean, literaturak ez du zauri hori itxiko.

Egungo gurasoen kultura gehiena telebistaren bidez jasotakoa da. Prest ikusten al dituzu alor hori lantzeko?

Prest baino, beharrean ikusten ditut. Euskaraz oso tradizio aberatsa dago, eta etxean modu naturalean eman da. Bizimodu modernoan eten da hori. Gurasoek ez dute gogoratzen, eta galduta sentitzen dira gehienak.

Zer dela-eta izan behar dute hobeak tradizioko kantak eta jokoak, telebistan ikasitakoak baino?

Plastikoa eta egurra parekatzea bezalakoa da hori. Nik nahiago dut egurra, baina ez dut ukatuko pastikoak ere baduela bere lekua. Besterik ez dagoenean hori erabili behar da, ez gara orain telebista-eta gaitzesten hasiko. Halere, telebistak bestea kentzen duenean, orduan galera dago hor. Garrantzitsua da espazioak sortzea, eta ohera sartzeko unea da horietako bat, telebista ixiltzeko eta norberaren ahotsa sartzeko.

Eskertuko digute seme-alabek txikitan irakurri izana?

Hamar urte barru ez digute eskertuko, baina hogeit hamar urte barru gogoratuko dira.